



2deo SERIEAK 2021

1. AURKEZPENA

2deo SERIEAK Tabakalerako 2deo ikus-entzunezko laborategiak sustatutako programa bat da, telesailen sortzaileen (ekoizleak eta gidoiariak) proiektuak tutoretzan hartzeko eta babesteko. Mentoretzak eta aholkularitza indibiduala eskaintzen ditu, eta Donostiako Zinemaldiarekin (SSIFF) lankidetzan garatzen da.

Prozesu osoan zehar hiru mentore egongo dira, eta programan aukeratutako hiru proiektuen jarraipena egiteaz arduratuko dira: Aitor Gabilondo, Christine Vachon eta Xabier Berzosa.

Helburua da aukeratutako proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna azpimarratzea, eta, horrekin batera, euskarazko telesailen eta haien nazioartekotzearen alde egitea, banaketa-eredu berriek eskaintzen dituzten aukerei esker. Telesailen sortzaileentzako 2deo Serieak mentoretza-programak talentu berriak eta ibilbide profesionala duten pertsonak inplikatu nahi ditu, telesail-proiektu baten aldeko apustua egin dezaten, edozein formatu eta generokoa, nazioarteko anbizioarekin eta euskarazko ekoizpenarekiko interes bereziarekin. Edozein genero eta iraupeneko telesail-proiektuek har dezakete parte, fikziozko telesailak eta dokumentalak barne, arreta berezia eskainita plataforma digitalei.

Deialdiaren bidez hiru proiektu aukeratuko dira, gutxienez bat euskaraz, eta horiek izango dira mentoretzaren xedea. Hurrengo hilabeteetan, aukeratutako pertsonak dossier bat prestatuko dute mentoreen laguntzarekin, eta ondoren SSIFF jaialdian aurkeztuko diete ekoizleei, banatzaileei edo inbertitzaileei, bereziki plataformei eta telebista-kateei.

Apiriletik irailera bitartean aurrez aurreko eta sareko saioak antolatuko dira, non talde bakoitzak gidoiaren analisia eta berridazketa, proiektu bakoitzaren ekoizpen- eta banaketa-estrategia eta eszenaratzea jorratuko dituen.



Tabakaleran hiru eguneko egonaldia planteatzen da, ekainetik uztaileira bitartean, proiektuak partekatzeko; epe horretan, saio bateratuetan lan egingo dute aukeratutako pertsonak eta mentoreak. Programaren azken zatian, SSIFF jaialdiarekin bat etorriz, pitching saio bat egingo da, non taldeek euren proiektuak sektoreko eragileei aurkezteko aukera izango duten, telesaila ekoizteko aukerak lortzeko.

2. PROGRAMA ETA ZUZKIDURA EKONOMIKOA

Proiektu bakoitza azpimarratzeko xedearekin, iraileko pitching saioetan ahalik eta kalitate eta heldutasun handiena lor dezaten, programak honako hau eskaintzen du:

1. Mentoretza Aitor Gabilondo, Christine Vachon eta Xabier Berzosaren eskutik; proiektu bakoitzarekin lotutako aholkularitza emateaz gain, haren garapena orientatu eta ikuskatuko dute.
2. Ekaina eta uztaileko hiru eguneko egonaldirako aukeratutako pertsonen bidaia-gastuak, ostatua eta dietak (35 euro egunean), eta beste hiru egun Donostiako Zinemaldian zehar.
3. Garapenerako laguntza: Bi zatitan banatuko diren 6.000 euro, 3.000 apirilean, proiektuak aukeratu ondoren, eta 3.000 programa amaitzean. Laguntzaren zuzkidura aurreikusita dago zuzenean proiektuen garapenarekin lotutako gastuak ordaintzeko, eta behar bezala azaldu eta justifikatu beharko da memoria batean. Parte-hartzaile bakoitzak memoria hori KGNZ/Tabakalerari eman beharko dio 2021eko urriaren 15a baino lehen. Alde bakoitzak dagozkion zergak ordaindu beharko ditu, Espainiako indarreko araudiarekin bat. Bidezkoa bada, KGNZ/Tabakalerak dagokien atxikipena egingo die parte-hartzaileei edo ordezkariari, emandako laguntzaren zenbatekoaren gainean.
4. Amaierako pitching saioa, SSIFF jaialdiarekin bat etorrira.

Nahitaezkoa izango da saio eta egonaldi guztietan parte hartzea, baita 2021eko SSIFF jaialdiko pitching saioan ere.



3. PARTE-HARTZAILEAK

Programa telesail-proiektu baten sortzaileei dago zuzenduta: ekoizle exekutiboari eta/edo gidoilariari. Eskatzailea proiektuaren ekoizle exekutiboan izango da, eta, horrez gain gidoilaria ez izatekotan, bat gehitu beharko du taldean.

Deialdian pertsona fisikoek hartu ahal dute parte modu indibidualean, deialdi honetan jasotako baldintzekin bat.

Halaber, deialdian 2 pertsona fisikok hartu ahal dute parte elkarrekin, euren harremana formalizatu beharrik gabe; kasu horretan, KGNZ/Tabakaleraren aurrean proiektuaren ordezkaria izango den pertsona bat izendatu edo identifikatu beharko da, ondore guztietarako.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahalko du.

4. BATZORDEA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio-batzorde bat eratuko da proiektuak aukeratzeko, eta honako hauek osatuko dute:

- Aitor Gabilondo
- Xabier Berzosa
- Donostiako Zinemaldiaren ordezkari bat,
- EITBren ordezkari bat eta
- KGNZ/Tabakaleraren ordezkari bat, idazkaritza-lanak egiteko.

Batzordeak aurkeztutako proiektuak baloratuko ditu jarraian adierazten diren irizpideekin bat:

Proiektuaren kalitateari eta sormenari emango zaie lehentasuna, baita egingarritasunari ere. Gizarte garaikidearen gaineko ikuspegia eta

globaltasunaren anbizioa bateratuko dituen osagai berritzailea ere baloratuko da.

Hautaketa-prozesuan zehar, batzordeak hautagaietako batzuk elkarriketatu ahalko ditu.

Ezinbestekoa da parte-hartzaileak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea hautaketa-prozesuan jarraitzeko.

5. ESKAEREN EPEAK ETA HAUTAKETA

***Arazo bat tarteko, proiektuak aurkezteko epea luzatu egin da.**

Proiektuak jasotzeko deialdia irekita egongo da 2021eko otsailaren 5etik martxoaren 10era arte (13:00 UTC+2).

Apirilaren 5ean programa osatzeko aukeratutako hiru proiektuak jakinaraziko dira.

6. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

***Arazo bat tarteko, parte hartzeko baldintzak aldatu dira.**

Proiektuekin lotutako baldintzak:

- Parte-hartzaileek edozein genero eta iraupeneko telesail-proiektuak aurkeztu ahalko dituzte, telebistarako, Internetarako edo plataforma digitaletarako.

Gainera, deialdira aurkeztuko diren parte-hartzaile edo ordezkariak honako baldintza eta konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- Zerga-betebeharrak ordainduta izatea, beharrezkoa bada.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea, beharrezkoa bada.



- Parte-hartzaileak edo ordezkariak ez izatea laguntzak edo dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren administrazio- edo zigor-zehapenik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debeku.
- Deialdiaren oinarrietan ezarritako epeak betetzen ez badira justifikatutako kausarik gabe, esleitutako laguntzak eten ahalko dira, eta esleipendunak jasotako laguntza guztiak itzuli beharko ditu, hala badagokio.
- KGNZ/Tabakalerak laborategian egindako lana erabili ahalko du deialdiaren xede den programa, haren edukia eta haren emaitzak ezagutarazteko eta herritarren esku jartzeko.
- Deialdiaren xede den programan parte hartzeko aukeratutako proiektuetatik ateratako ikus-entzunezko obren banaketan eta aurkezpen publikoan aipatu egin beharko da deialdi honetan parte hartu dela, eta Tabakaleraren eta 2DEOren markak, logotipoak eta izen komertzialak ere agertu beharko dira (adibidez, kredituetan).
- 2DEO eta Tabakaleraren espazioen erabilera-arauak errespetatu beharko dira.

Parte-hartzearen berrikuspena eta amaiera:

Tabakalerak proiektu bakoitzaren ordezkarien parte-hartzea berrikusteko eskubidea izango du, eta, hala badagokio, hura edozein unetan amaitzeko eskubidea.

Laguntza ekonomikoa jaso duten eta programatik kanpo gelditu diren parte-hartzaileek (hura amaitu baino lehen) laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko dute.

7. IZEN-EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

***Arazo bat tarteko, aurkeztu beharreko agiriak aldatu dira.**

Deialdiaren oinarriak KGNZ/Tabakaleraren webgunean kontsulta daitezke. Izena emateko, sareko inprimakia bete eta PDF txosten bat erantsi behar da, honako agiri hauekin:

- Sinopsi laburra: 100 hitz.
- Sekuentzia gidoidun bat.
- Argumentuaren eta pertsonaien tratamendua: 3 orri gehienez ere.
- Serializazioaren planteamendua (formatua, iraupena, etab.): 1 orri gehienez ere.
- Denboraldiaren sinopsi xehatua: 3 orri gehienez ere.
- Asmo-gutuna.
- Taldeko kideen proposamena eta horien biografia.
- Proiektua hobeto ulertarazte aldera hautaketa-batzordearekin partekatu nahi diren beste material batzuk: estekak, argazkiak, audioa, Vimeorako estekak, etab.
- NANaren edo identifikazio-dokumentu ofizialaren kopia.
- Zerga-administrazio eskudunak emandako zerga-egoitzaren ziurtagiria.
- Agiriak euskaraz, ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahalko dira.

8. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile edo ordezkari guztiek bermatuko dute deialdi honen harira aurkezten diren proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak, baita, hautatuak izanez gero, deialdi honetan parte hartu bitartean sortzen diren elementu guztiak ere, originalak direla eta ez dituztela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalerari jaso dituen edo laborategiko proiektuak gauzatzeko prozesuan sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko material guztiak egun ezagutzen ditugun euskarri mota guztietan erabiltzeko, betiere xede bakarra izanik deialdia, haren edukia eta haren emaitzak herritarrei jakinaraztea eta haien esku jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalerak eskubidea izango du eduki hori ikusgai jarri eta publikoki komunikatzeko, edozein kanalen bidez, izan proiektua gauzatu bitartean, izan hura bukatu ondoren, epemugarik gabe.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan, ezta gorago aipatutako dokumentuei eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide



guztien titulartasunean ere; horiek materiala sortu duten parte-hartzaileen edo ordezkarien esku egoten jarraituko dute.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkari bakoitzak Tabakaleraren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektualari buruz jar ditzaketen erreklamazio guztiei, honako hauei dagokienez: (i) deialdi honen harira aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak eta (ii) hautatuak izatekotan deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak; hala, Tabakalerari kale-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei dagokienez egon litezkeen erreklamazioen harira sortutako kalte eta galera guztiengatik.

Horrez gain, eta Tabakaleraren markak, logotipoak eta izena erabili ahal izateko, 6. oinarrian ezarritakoarekin bat, erakunde honek elementu horiek ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile edo ordezkariari. Lizentzia hori ez-esklusiboa, doakoa eta besterenezina izango da, eta mugatuta egongo da proiektuen harira sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatu eta publikoki komunikatzeko egindako aurkezpenetara.

9. DATUEN BABESA

Parte-hartzaileei edo ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartuz gero Tabakalerari baimena ematen diotela eskaera aurkezteko unean eta, hautatuak izanez gero, deialdian parte hartu bitartean hari jakinarazitako datu pertsonalak tratatzeko, eskaera hori izapidetu eta kudeatzeko eta deialdian parte hartu ondoren ezagutarazte-lanak egiteko.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, legeak jakinarazteko betebeharrak hori ezartzen duenean. Halaber, 10. oinarrian ezarritakoarekin bat, deialdian parte hartzeko hautatutako parte-hartzaileen edo ordezkarien irudia eta izena ere hirugarrenei komunikatu ahalko zaizkie, Tabakaleraren webgunean argitaratuta edo Tabakalerak bere jarduerak ezagutarazteko erabiltzen dituen beste euskarri ukigarri eta ukiezin batzuen bitartez.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza publikoa



jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko, eta eskatzaileak ezingo du proiektuan parte hartu.

Tabakalerak soilik hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, deialdi honetako parte-hartzea kudeatzeko ezinbestekoa den epean gordeko ditu parte-hartzaileen edo ordezkarien datu pertsonalak, baita lege-betebeharrak betetzeko nahitaez gorde beharreko kontserbazio-epean ere.

Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) Tabakalerari eskatzeko euren datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, beste norabait eramateko edo datuen tratamenduari uko egiteko; horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko diote Tabakalerari, pribatasuna@tabakalera.eus helbide elektronikora, gaia "2DEO deialdia serieak 2021" delarik eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsita (jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko da) eta NANaren kopia batekin. Horrez gain, eskubidea dute (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentzian edo eskumeneko beste edozein kontrol-agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko, bereziki euren eskubideak errespetatu ez direnean.

10. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko hautatuak diren parte-hartzaileek edo ordezkariak berariaz baimena ematen diote Tabakalerari (i) beharrezko bitarteko teknikoen bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakaleraren espazioetan egiten denean, eta (ii) irudi horiek eta parte-hartzaileen/ordezkarien izena Tabakaleraren webgunean edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, herritarrei deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta horiek gizartearen esku jartzeko.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkariak jakinarazten zaie edozein unetan dutela baimen hori kentzeko aukera.



11. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek. Eskaeran informazioren bat falta bada, parte-hartzaileak deialditik kanpo geldituko dira.

Informazio gehiago: zdeo@tabakalera.eus